

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### **Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskala, behin betiko onartzea**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 13ko bilkuran, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskalari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen araudiaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua araberera.

Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

#### **URIZAHARREKO UDALAREN EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ORDENANTZA FISKALA**

##### **1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea da eguneko arretarako landa-zentroaren prezio publikoen aplikazioa arautzea, eta bereziki:

- Zerbitzuaren pertsona erabiltzaileak prezio publikoan duen parte-hartze ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Sortzapena eta ordainketa arautzen duten irizpideak.
- Prezio publikoak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoa zehazteko irizpideak.
- Prezio publikoen zenbatekoa eta gaitasun ekonomikoaren arabera ezarri beharreko hoberiak zehaztea.

##### **2. artikulua. Esparrua**

Ordenantza fiskal hau eguneko arretarako landa-zentroari ezarriko zaio; kudeaketa zuzeneko araubidean zein hitzarmen bidez beste erakunde publiko batzuekin, eta kontzertu, hitzarmen edo kontratu bidez erakunde pribatuekin.

##### **3. artikulua. Ordaindu behar duten pertsonak**

1. Prezio publikoa ordaindu beharko dute:

- a) Eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzua zuzenean jasotzen duten pertsona fisikoak, 1. paragrafo honetako b) ataleko kasuan ez daudenean.

b) Helduak badira, legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen bidez jarduten badute, azken horiek ordaindu beharko dituzte; hala ere, kasu horietan, ordezkaturako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta gaitasun ekonomikoa ordezkaturako pertsonarena izango da.

2. Hala badagokio, subsidiarioki ordaintzera behartuta egongo dira erabiltzaileak edo haren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsonak —ordenantza fiskal honetako lehen xedapen gehigarrian zehaztutako moduan— dohainik eskualdaturikoaren onuradun diren pertsonak; 60 urtetik aurrera edo zerbitzuaren lehen eskaera aurkeztu aurreko 10 urteko epean.

Ordaintzeko betebeharra merkatuko balio eguneratura iristen da ondasun higiezin kasuan, zorra eskatzeko unean.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, ordaintzeko betebeharra, dohaintzaren datan, eskualdaketa-baliara arte iritsiko da, dagokion KPlaren arabera eguneratuta.

Era berean, erabiltzailearen ondare osoa edo zati bat bahitu egin bada abal-emaile, hipoteka-bermatzaile edo antzeko figura gisa hirugarren baten alde sinatu duelako, hirugarren pertsona horrek, subsidiarioki, prezio publikoa ordaindu beharko du. Ordaintzeko betebeharra abala, hipoteka edo antzeko figura eratzeke eskriturretan edo, halakorik ezean, enbargo-eskriturretan esleitutako tasazio-baliara arte iristen da.

## I. TITULUA: ERABILTZAILEAREN PARTE-HARTZE EKONOMIKOA

### 4. artikulua. Prezio publikoaren ordainketa osoa

1. Eguneko arretarako landa-zentroa ordaintzera behartuta dauden pertsonak, ordenantza fiskal honetako 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan, dagokion prezio publikoa ordainduko dute, osorik, horretarako behar adinako gaitasun ekonomikoa dutenean, prezio hori ordainduko dela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eska badaiteke ere.

2. 1. paragrafoan aurreikusitakoari dagokionez, ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dauden pertsonak behar adinako gaitasun ekonomikoa dutela ulertuko da, baldin eta ahalmen hori, ordenantza fiskal honetako III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, II. eranskinean adierazitako mugen parekoa edo handiagoa bada, zerbitzu motaren arabera.

3. Ordenantza fiskal honetako 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoa txikiagoa bada artikuluko honen 2. paragrafoan aipatutako mugak baino, subsidiarioki ordaintzeko betebeharra dute pertsonengana (3.2 artikuluan zehaztuak) joko da —halakorik balego—, erabiltzailearen ekarpena osa dezaten, prezio publikoaren zenbateko osoa estali arte, edo prezio publiko osoa ordain dezaten, 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoak ez dionean uzten ekarpenik egiten.

### 5. artikulua. Hobariak

1. 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dauden pertsonak ez badute prezio publikoa osorik ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik, II. eranskinean zehazturiko mugetatik beherakoa delako, hobariak jaso ahal izango dituzte kasuan kasuko prezio publikoetan.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren prezio publikoari ezartzen ahal zaizkion hobariak zehazteko, gehikortasun-printzipioa hartuko da kontuan, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren arabera. Printzipio hori ordenantza fiskal honetako III. tituluko I. kapituluan ezarritako irizpideen arabera zenbatuko da.

3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak ordenantza fiskal honen III. eranskinean zehazten dira, eta I. eranskinean zehazturiko prezio publikoak indarrean dauden bitartean ezarriko dira. Prezio horiek 16. artikuluan ezarritako bidetik eguneratu edo aldatzen direnean, dagozkien hobariak zehaztuko dira.

#### **6. artikulua. Erabilera-motaren arabera salbuespen partzialak**

1. Eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzua erabiltzen duten pertsonak gizartean eta familian integratzea errazteko, erabiltzaileak 5 egun edo gehiago jarraian egoten badira zentrotik kanpo —betiere, egun horiek bat badatoz zerbitzua benetan martxan dagoen egunekin—, urtean gehienez ere 45 egun, lanpostua gordetzeagatik eta adierazitako aldietan, esleituta duten prezio publikoaren ehuneko 60a ezarriko zaie. Gizartean eta familian integratzearen ziozko ez egoteak urteko 45 egun gainditzen baditu, ez da ezarriko salbuespen partziala, eta esleitutako prezio publiko osoa ezarriko da berriz ere 46. egunetik aurrera.

2. Ospitaleratze-kasuetan ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik ezarriko eta, beraz, ez da prezio publikoaren sortzapena etengo. Aurrekoa alde batera utzi gabe, erabiltzaileak 7 egun edo gehiago ematen baditu jarraian ospitaleratuta, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90ekoa izango da, ospitaleratze-aldiaren lehen egunetik aldi hori amaitzen den arte, salbu eta aldi hori zerbitzu horretara sartzeko araudian aurreikusitako gehieneko etenaldia baino luzeagoa bada; hortik aurrera, iraungi egingo da ospitaleratzearen aurretik erabiltzen zuen zerbitzua.

3. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik ezarriko, zerbitzua esku-ratzeari buruzko araudiaren arabera, eskatzen den informazioa eta dokumentazioa berandu aurkeztearen zioz edo prezio publikoa behin baino gehiagotan ez ordaintzearen zioz gerta daitezkeen zerbitzuaren etete-kasuetan.

#### **7. artikulua. Erabilera libreko diru-kopurua**

Erabilera libreko zenbatekoa bermatuta geldituko da, zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak (ordenantza fiskal honen III. eranskinean ezarriak) zehazteko formularen bidez.

## **II. TITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA**

### **8. artikulua. Sortzapena**

Arategi honetan araututako prezio publikoa ordaintzeko beharra hasiko da zerbitzua benetan ematen hasten denean, eta egun horretatik zerbitzua behin betiko eteten den egunera arte igarotako aldia kontuan hartuko da.

### **9. artikulua. Ordainketa**

Esleitutako prezio publikoak —osoak, hobaridunak zein zati batean salbuetsiak— ordainagaria kobratzeko aurkezten zaion unean ordainduko dira, banku-helbideratzearen bidez.

## **III. TITULUA. KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO-ARAUAK**

### **I. Kapituluak. Gaitasun ekonomikoa zehaztea**

#### **10. artikulua. Gaitasun ekonomikoaren osagaiak**

1. 3.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, prezio publikoan duen parte-hartzea zehazteko xedearekin, familia-unitatearen errenta eta ondarea baloratu dira, urteko zenbaketan, eta horretarako kapitulu honetan ezarritako balorazio-irizpideak ezarri.

2. Gaitasun ekonomikoa zenbatzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Eskura dauden azken datu fiskalei dagozkien balioak, salbu eta, geroago, balio horiek aldatu dituen gertaera garrantzitsuren bat gertatu bada; kasu horretan, daturik berrienak hartuko dira kontuan.

b) Hiri- edo landa-lurreko ondasunen kasuan, horiek katastroko balioaren arabera zenbatuko dira, erreferentziatzen hartuta eskura dauden azken datu fiskalak. Balio hori autonomia-erkidego edo lurralde historiko bakoitzeko ondasun higiezinak baloratzeko araudiaren arabera dago eguneratuta.

c) Edozein motatako ondasunen dohaintzak edo haien gaineko eskubideen uko egiteak dohaintzaren egunean eskualdatutako balioaren arabera baloratuko dira, dagokion KPIaren arabera eguneratua.

### 11. artikulua. Errenta

1) Aurreko artikuluan aurreikusitako gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo diru-sarrerera konputagarritzat hartuko dira familia-unitateak urtero dituen etekin eta eskubideak, lanaren ondoriozkoak, honako hauetatik datozenak:

a) Funts publiko edo pribatuen kargurako pentsioak eta prestazio ekonomikoak, jasotzen diren diru-sarrera gordinak kontuan hartuta; ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira zerbitzua jasoko duen pertsonak dituen pentsioak, sorospenak, prestazio ekonomikoak edo beste edozein eskubide ekonomikoak, artikulua honetako 2. paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.

b) Norbere edo besteren kontura egiten den lanetik eratorritako etekin osoak.

2) Errenta zehazterakoan, ez dira zenbatuko honako prestazio hauek:

a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako prestazio ekonomiko finalistak: Familia-inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

b) Ondoko prestazioak, a) atalean aurreikusitako izaera eta xedearen antzekoak:

– Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 194. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den baliaezintasun handiagatik osagarria.

– Ehuneko 75eko edo hortik gorako desgaitasuna duen 18 urtetik gorako seme-alabagatik esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan ezarritakoa.

– Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan (Gizarte Segurantzaren arloko xedapen espezifikoari buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatua) ezartzen den beste pertsona baten beharraren ziozko kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria.

– Hirugarren pertsonarengatik laguntza (desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c). artikuluan ezartzen dena eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan mantentzen dena), legegintzako errege dekretu horren onuradun izateaz gain, lege horren xedapen iragankor bakarrean jasotzen diren baldintzak betetzen dituztenentzat.

3) Errenta baloratzeko, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Foru Sailak emandako informazioa hartuko da erreferentzia gisa, 10.2 artikuluan aipatutako datu fiskal erabilgarrien arabera. Diru-sarreratzat hartuko da honako kontzeptu hauen batura:

– Lanaren ziozko etekin osoak.

– Lanbide-, enpresa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin osoak.

– Egotzitako salbuetsitako lan-errentak guztira.

Artikulu honetako 2. paragrafoan adierazitako errentak jasotzen diren kasuetan, prestazio ekonomiko horien egiaztagiria aurkeztu beharko da, paragrafo horretan aurreikusitako ondorioetarako salbuetsitako zenbatekoa zehazteko.

4) Hileko errenta zehazteko, urteko errenta hamabi hilerokotan banatuko da.

## **12. artikulua. Ondarea**

1. 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ondareztat hartuko da:

– Guztiz edo zati batean familia-unitatea osatzen duten pertsonen titulartasunekoak diren ondasun eta eskubide ekonomikoak, eskuragarri dauden azken datu fiskalak erreferentziatzen hartuta, eta finantza-aktiboak buruz eskatzen den informazioarekin osatuta, 21. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoa izan ezik.

– Kalte-ordainak eta kapitalizaturiko errentak, ekitaldi batean edo gehiagotan sortutakoak.

– Erabiltzaileak edo haren ezkontideak edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsonak —lotura hori ordenantza fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten den moduan— edo ordaintzera behartutako pertsonak dohainik eskualdatu dituen ondasun eta eskubideen balioa, dohaintzaren egunean duen transmisio-balioarekin, dagokion KPlaren arabera eguneratua.

2. Ez dira kontuan hartuko ondarean:

a) Ohiko etxebizitza, aparteko balioa duenean izan ezik. Aparteko balio hori duela ulertuko da haren balio katastrala 250.000,00 eurotik gorakoa denean; kasu horietan, ondarearen ondorioetarako, muga horrekiko balio katastralaren soberakina kontatuko da.

Ez da ohiko etxebizitzat hartuko, hala bazen ere, izaera hori galtzen badu etxebizitzaren titularra edozein modalitatetako egoitza-zentro edo behin betiko landa-eremuko ostatu-zerbitzuan sartu delako behin betiko, salbu eta 24. artikuluan definituriko familia-unitatea osatzen duten pertsona bat edo batzuk etxean geratzen direnean.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko da, etxebizitzaz beraz gain, garaje bat eta/edo trasteleku bat, zein, landa- edo hiri-izaera duen familia bakarreko etxebizitza bada, bereizita ez dagoen erantsitako lurzatia.

b) Ondasun eta eskubideek dituzten karga eta zamak eta beren balioa murrizten dutenak, salbu eta ohiko etxebizitzarako den higiezin eskuratzeko direnak edo, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak onetsi ondoren, hura birgaitzeko direnak. Karga konputagarri horiek ezingo dute inola ere sortu balio garbi negatiborik.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Bereziki babesturiko ondarrera ekarritako ondasun eta eskubideak, azaroaren 18ko 41/2003 Legearen babesean (desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia aldatzen dituen), helburu honekin, salbu eta aipaturiko ondarearen titularra bada zerbitzua jasotzen duena, ondare horrek pertsonaren bizi-premiak asebetetzen duen heinean, aipaturiko legearen 1.1 eta 5.4 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

e) Landa- edo hiri-izaera duten ondasun higiezinak, jarduera ekonomiko bati lotutakoak; horien etekinak errenta zehazteko hartzen dira kontuan, 11. artikuluan ezarritako moduan.

Hileko ondarea zehazteko, ondarearen urteko zenbatekoa hamabi hilerokotan banatuko da.

## **13. artikulua. Familia-unitatea**

1. Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia unitateko kideztat hartuko dira honako hauek:

– Zerbitzua baliatuko duen pertsona.

– Haren ezkontidea edo legez aitortutako eta behar bezala egiaztatutako antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona, lehenengo xedapen gehigarrian definituriko moduan.

— Haren ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.

— Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten 18 urtetik gorako seme-alabak, betiere, zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

— ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte arteko ondorengoak, betiere, eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.

Ondorengo zaintza partekatua dagoen kasuetan, pertsona horiek zerbitzua eskatzen duen pertsonaren familia-unitatean sartuko dira. Aurreko bi ahaideek foru-zerbitzua eskatzen dutenean, lehenengo ondorengoa mendekotasun-mailarik handiena duen eskatzailearen familia-unitatean sartuko da; bigarrena mendekotasun-mailarik txikiena duen eskatzailearen familia-unitatean, eta horrela, hurrenez hurren, ondorengo kopuruaren arabera.

2. Edonola ere, pertsona bat familia-unitate bakarreko kide izango ahalko da soilik.

#### **14. artikulua. Gaitasun ekonomikoa baloratzeko irizpideak**

1. Gaitasun ekonomikoa familiaren urteko errenta eta familia-ondarearen urteko ondorengo ehunekoak (erabiltzailearen adinaren arabera aldatzen direnak) batzearen ondoriozko zenbatekoaren baliokidea izango da, jarraian zehazten den bezala:

65 urtetik gorako pertsonak, beren ondarearen ehuneko 20. Atal honetan ezarritakoa aplikatuko zaie, halaber, 65 urte izan ez arren, adinekoentzako zerbitzu edo zentroetara salbuespenez sartzen direnei.

2. Prezio publikoa familia unitatearen gaitasun ekonomikoaren arabera zehazten den zerbitzuen kasuan, irizpide espezifiko hauek aplikatu beharko dira:

a) Familia-unitatea pertsona bakarrekoa denean, 1. paragrafoan ezarritakoa zuzenean aplikatuz kalkulatu da gaitasun ekonomikoa.

b) Familia-unitatea bi lagunek osatzen dutenean, aplikagarria den prezio osoa edo hobariduna kalkulatzeko, 1. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat kalkulatu hileko gaitasun ekonomiko osoaren ehuneko 80 hartuko da kontuan.

c) Familia-unitatea bi lagunek baino gehiagok osatzen dutenean, b) atalean aurreikusitako ehuneko 80ko portzentajea ehuneko 5 murriztuko da gainerako pertsona bakoitzeko.

Hileko gaitasun ekonomikoa zehazteko, urteko gaitasun ekonomikoa hamabi hilerokotan banatuko da.

### **II. Kapitulua. Ebazpena, berrikuspina eta eguneraketa**

#### **15. artikulua. Ebazpena**

Organo eskudunaren ebazpenak zerbitzu horri aplikatu beharreko prezio publiko osoa adieraziko du, bai eta, hala badagokio, gaitasun ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna ere.

#### **16. artikulua. Ofiziozko berrikuspina eta jakinarazteko betebeharra**

1. Eguneko arretarako landa-zentroa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak —osoak, hobaridunak zein zati batean salbuetsiak— ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo eskudunak, edo interesdunak edo haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak eskatuta, bai banakako berrikuspenaren esparruan, bai berrikuspen orokorraren esparruan. Berrikuspen horien ondorioz, prezio publikoa aldatu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada hura zehazteko oinarri izan zen gaitasun ekonomikoan funtsezko aldaketaren bat gertatu dela, dagokion ebazpenaren bidez.

2. Aurrekoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honetan aipatzen den prezio publikoko zerbitzuen erabiltzaileak —edo, hala badagokio, bere legezko ordezkariak edo izatezko zain-tzaileak—, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean jakinarazi beharko du, gertatzen den egunetik zenbatzen hasita, bere bizikidetzako egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errentan edo bizikidetzagatik konputagarriak diren ondareetan (norberarenak edo besteenak) aldaketaren bat ematen bada; era berean, erabiltzaileari esleitutako prezioetan eragin dezaketen gorabeheren berri eman beharko du.

3. Administrazio eskuduna jakitun bada gaitasun ekonomikoan aldaketaren bat izan dela eta aldaketa hori ez dela behar bezala jakinarazi aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, esleitutako prezio publikoa berrikusiko du, inguruabar berrietara egokitzeko. Bi kasu eman ahalko dira:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, atzerako eraginarekin aplikatuko da, aipatutako inguruabarrak aldatu diren egunera, eta 3.1 artikuluan aurreikusitako moduan ordaintzera behartutako pertsonarentzat epe horretan metatutako atzerapenak ordaintzeko betebeharra sortuko du.

b) Esleitutako prezio publiko berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, ez da atzeraeraginez aplikatuko.

4. Administrazioari gaitasun ekonomikoan aldaketaren bat izan dela jakinarazi bazaio, eta administrazio horri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, 2 hilabeteko epean ez bada berrikusi prezio publikoa, bi kasu gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio berria aurretik esleitutakoa baino handiagoa bada, ezingo da atzeraeraginez aplikatu.

b) Esleitutako prezio berria aurretik esleitutakoa baino txikiagoa bada, administrazioak bi-degabe kobraturiko zenbatekoak itzuli beharko ditu.

### **17. artikulua. Prezio publikoen eguneraketa**

Ordenantza fiskal honetan ezarritako prezio publikoak ordenantza baten bidez eguneratu beharko dira. Ordenantza horrek, halaber, aplikatu beharreko hobariak zehaztuko ditu eta behar adinako gaitasun ekonomikoa mugatuko du.

### III. Kapitulua. Prezio publikoen ziozko zorrak

#### **18. artikulua. Prezio publikoen ziozko zorrak**

1. Zerbitzuak sorrarazitako eska daitekeen prezio publikoari —prezio osoa zein prezio hoba-riduna— dagokion ordainagiria ez bada ordaindu bankuak atzera bota duelako, horren zenbate-koa eskatuko da, eta 30 egun naturaleko epea emango zaio ordaintzera behartutako pertsonari zor duen zenbatekoa ordaindu dezan edo ordainketa zatika ordaintzeko eska dezan.

2. Aurreko puntuan aipatutako epea eskatutako zenbatekoa ordaindu gabe edo ordainke-taren zatikapena eskatu gabe iraganik, 1. paragrafoan aipatutako prezio publikoa premiame-n-duzko administrazio-prozeduraren bidez eskatuko da.

3. Eska daitekeen prezio publikoa behin baino gehiagotan ordaintzen ez bada, zerbitzua jasotzeko eskubidea eten ahalko da.

4. Sartzeko prozedura batean egiaztatuko balitz ordenantza fiskal honen 3.1 artikuluan au-rraikusitakoaren arabera ordaintzera behartuta dagoen pertsonak aurretiko zorrak dituela egu-neko arretarako landa-zentroari dagokion prezio publikoa ordaindu ez izanagatik, pertsona eskatzaileari eskatuko zaio, 30 egun naturaleko epean —dagokion jakinarazpena jasotzen den egunetik zenbatzen hasita—, ordain ditzala zor dituen zenbatekoak edo eska diezaiola organo eskudunari zorra zatikatzeko, artikulua honen 1. eta 2. ataletan aurreikusten den bezala.

Pertsonak ez badu errekurtsorik aurkezten zorraren ordainketarako, zerbitzu berrian sartzeko eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe, horretarako eskumena duen organoak ebazpena eman ondoren. Hala ere, pertsona horrek, ondoren, zorra ordaindu eta sartzeko beste prozedura bati ekin ahal izango dio.

Lehenengo xedapen gehigarria. Ezkontzaren antzeko harremana

1. Ordenantza fiskal honen ondorioetarako, ezkontzaren antzeko harremanaren bidez lotuta daudela ulertzen da izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean (autonomia-mailan dagoena indarrean) zehaztutako izatezko bikoteak.

2. Lotura hori Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteen erregistroaren ziurtagiriaren bidez edo, hala badagokio, udal erregistroaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, aipatutako Legearen 3. artikuluan araututako moduan.

Bigarren xedapen gehigarria. Ohiz kanpoko egoerak

1. Eguneko arretarako landa-zentroaren erabiltzaileek izan ditzaketen inguruabar sozial eta/edo ekonomiko bereziak kontuan hartuta, organo eskudunak hobari partzialak edo osoak adierazi ahal izango ditu edo, hala badagokio, ordenantza fiskal honetan aurreikusitako hobariak, salbuetsitako zenbatekoak edo erabilera libreko zenbatekoak gehitu ahalko ditu.

2. 6. artikuluan aipatzen ez diren arrazoiengatik zerbitzuaren erabileran etenaldiak gertatzen direnean, organo eskudunak prezio publikoaren salbuespen partzialak onestu ahalko ditu, lanpostua gordetzeagatik.

Azken xedapena. Indarrean sartzea

1. Ordenantza fiskal hau, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

2. Ordenantza fiskal hau egun horretan edo geroago eguneko arretarako landa-zentroan sartzen diren pertsonen ezarriko zaie.

## I. ERANSKINA

### Prezio publikoaren zenbatekoa

1. tarifa Eguneko arretarako landa-zentroa	
1.1 tarifa Arreta pertsonalerako zerbitzua	119,73 €/hilean
Zerbitzu osagarriak:	
1.2. tarifa Janari-zerbitzua	81,60 €/hilean
1.3. tarifa Arropa garbitzeko zerbitzua	7,54 €/ekitaldiko
1.4. tarifa Komun geriatrikoaren zerbitzua	4,68 €/ekitaldiko

1.1 eta 1.2 tarifetan aurreikusitako zerbitzuak ez direnean egunero erabiltzen, ezarri beharreko prezio publikoa modu proportzionalan kalkulatu da.



**II. ERASKINA**

## Behar besteko gaitasun ekonomikoa mugatzea

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, ulertuko da behar besteko gaitasun ekonomikoa dagoela eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

1. Hobariak zehaztearen harira 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikoa dagoela ulertuko da, baldin eta prezio hori, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoari jarraikiz kalkulatuta, hileko 1.500,00 eurokoa edo handiagoa bada.

2. Halaber, behar besteko gaitasun ekonomikoa dagoela ulertuko da pertsonak 50.000,00 euroko edo gehiagoko ondare konputagarria duenean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat kalkulaturako gaitasun ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan.

**III. ERANSKINA**

## Hobari aplikagarriak

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, hobari hauek aplikatuko zaizkie zerbitzu bakoitzari dagokion prezio osoa ordaintzeko adinako gaitasun ekonomikorik ez dutenei, ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitako moduan:

Eguneko arretarako landa-zentroen esparruan emandako arreta pertsonalerako zerbitzuak ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko gaitasun ekonomikoaren arabera, honako taula-baremo hau ezartzearen ondoriozko hileko zenbatekoak ezarriko dira:

FAMILIAREN GAITASUN EKONOMIKOA (EUROTAN)	KOPURU HONETARA ARTE (EUROTAN)	ZENBATEKOA	GAINERAKO, KOPURU HONETARA ARTE	EHUNEKOA
0,00 eurotik	0	0	500,00	3,0
600,00	500,00	17,35	100,00	5,0
700,00	600,00	22,35	100,00	7,0
800,00	700,00	29,35	100,00	10,0
900,00	800,00	39,35	100,00	10,0
1.000,00	900,00	49,35	100,00	11,0
1.100,00	1.000,00	60,35	100,00	11,0
1.200,00	1.100,00	71,35	100,00	12,0
1.300,00	1.200,00	83,35	100,00	12,0
1.400,00	1.300,00	95,35	100,00	12,0
1.500,00	1.400,00	107,35	100,00	12,38
1.500,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		119,73 euro

Urizarrean, 2021eko irailaren 14an

*Alkatea*

**JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO**